

HERNANI

GOIZUETA

ARANO

EREÑOTZU

ASTIGARRAGA

Hemeroteka

Multimedia

Publizitatea

Bazkide egin

KOMUNITATEA



Pintxopotea egin zuten herriko tabernetan, pintxo bereziekin.

albisteak//XVII. SAGAR UZTA

«Hau da gure muztio berria!»

Sagar Uzta berriaren festa ospatuko dute gaur eta bihar, Astigarragan.

ASTIGARRAGA

2017/09/23 00:00 Larunbata

Asko falta da oraindik, ia lau hilabete, sagardo berria dastatzeko; baina sagar berriaren aurreneko zukua, bihar bertan probatuko dute astigartarrek. Sagar Uzta jaia ospatuko dute asteburuan, makina bat ekintzarekin; eta bihar egingo dute aurreneko muztioa, Foru Plazan, topa herrikoia eginez.

Ostegunean izan zuen aurreneko ekintza, aurtengo Sagar Uzta festak. Pintxopotea egin zuten herriko tabernetan, sagarraren eratorrieekin egindako pintxoak eskainiz.

Mendi-buelta eta errelebo proba gaur,


 PDF

HERNANI

Irailak 25

ESKELAK

HERNANI

INAXIO
ASTIASUINZARRA
PAGOL...



Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak

Puri-Purian

SOS Errefuxiatuaken furgoneta ... (1)

Urumeako gida

Santiomendin

Gaur izango du segida, hainbat ekintzarekin. Goizean, Sagar motak ezagutuz mendi-buelta egingo dute familian, Santiomendiko Sagardo bidean zehar; eta Santiomendin barrena egingo dute Sagardobide Erronka ere, errelebo probaren laugarren edizioa. Eta arratsaldean, Garbibai zafari-merienda deitu dutena izango da: Urumea ibaian zutikako arrauna edo paddle surf, Donostiatik Astigarragara; eta ondoren afari-merienda girotua, Gartziategin.

Festa haundia, Foru Plazan

Baina bihar izango du egun nagusia, Sagar Uztak. Aurten ere, festa haundia prestatu dute Foru Plazan, goiz osoan zehar. Sagar postre lehiaketa izango da, argazki rally digitala ere bai, eta sagar postuak eta herriko baserritarrenak ere jarriko dituzte.

Goizeko 11:00etan hasiko dute muztioaren elaborazioa, herritarren laguntzarekin: sagarra bildu, jo eta zanpatu. Eta hortik aterako da, uzta berriaren aurreneko muztioa, sagar dantzaren eta kirikoketaren ondoren, topa herrikoia eginez dastatuko dutena.

XVII. SAGAR UZTA

GAUR, larunbata

09:30, 'Sagar motak ezagutuz', Santiomendiko Sagardo Bidean zehar mendi-buelta familian.

10:00, IV. Sagardobide Erronka, Santiomendin zehar errelebo proba.

11:00, Familientzako apainketa tailerra sagarrarekin.

16:00-19:00, 'Garbibai zafari-merienda': zutikako arrauna Urumea ibaian, Donostiatik Astigarragara; eta Garbibai erakusketa eta afari-merienda girotua, Gartziategi baserri inguruan.

BIHAR, igandea

Sagarraren Jaia, Foru Plazan

09:30, Diana, Musika Eskolako eta Txirrisklako txistulariekin.

10:30-12:00, Sagar postre lehiaketa. Postreak frontoian entregatu behar dira.

10:30-12:00, X. Sagar Uzta Argazki Rally Digitalean izena ematea, plazan.



Komertzio bat bilatu

Bilatu



Gudari okindegia

Gosarietan eskaintza bereziak

Iragarki merkeak

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)

Telefona: 943332894

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.

Telefona: 616886660

+ Ikusi

gur



lazko s

11:00-14:00, Sagarraren azoka: sagarren erakusketa, dastaketa eta salmenta; sagardo eta muztio dastaketa; saski, txertaketa eta abarren erakustaldiak; herriko baserritarren produktuen salmenta; eta trikitilariak herrian zehar.

11:00, Muztioaren elaborazioa: sagar biltzea, jotzea eta zanpatzea, bertaratutako familien laguntzarekin.

12:30, Sagar dantza eta kirikoketa.

13:00, Txalaparta eta 2017ko uztako aurreneko muztioaren topa herrikoia.



[Txiokatu](#) [Whatsapp](#) [Emaila](#) [Inprimatu](#)


Inprimatu

IRUZKINAK

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragarria bateragarria:

- [Firefox](#)
- [Chrome](#)
- [Internet Explorer 11+](#)
- [Safari](#)

espero
sagard




Gurtub

ORAI
gur



Hezkun
eraldak
ikastol
Olanok



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eg

Gaur



20°

16°

Bihar



20°

10°

Etzi



24°

10°

[Aemet](#) eskaintako datuak

Azken argazkiak



Karabel eguna 2017



Euskal Jaiak 2017




Latsunbeberri-Marielut...



Portuko Jaiak 2017



Ergobiako Jaiak 2017



Goizuetako Fiestak - A...

A photograph of a man with grey hair, wearing a light blue short-sleeved button-down shirt, singing passionately into a black microphone. He is standing in front of a rustic stone wall. To his left, on the wall, are two small rectangular objects, one red and one blue. A black floor monitor is visible in the foreground to his right.

A man with short brown hair, wearing a dark sweater, is speaking directly to the camera. He is outdoors, with a paved path and green grass behind him. A bicycle is partially visible on the left side of the frame. The background shows some trees and a building.

TOKIKOM



Hernando Uda



Astigarragako Udala

Ereñotzuko

 Auzo Udala



Government of the Republic of Serbia
 Ministry of Education, Science and Technological Development
 Institute for the Development of the Curriculum

**DOBERA
KRONIKA
BAZKIDEAK**

Legezko oharra